

## KOSTU EGITURA



Enpresaren kostu egitura gure negozioa aurrera eramateak suposatuko lukeen gastu kopuru osoa da. Kostuak bi motatakoak izan daitezke, zuzenak edo zeharkakoak. Aurrez aurretik gure diru sarrerak eta gastuak ezagutzeak asko lagunduko digu gure dirua administratzen, ahalik eta kudeaketa onena egin dezagun, eta finantza arazoak aurreikusteko ere lagungarria izango zaigu.

Gure negozio-eredua balioan oinarritutakoa izango da, gure produktua ez baita merkea izango, baina bai kalitate handikoa. Gainera pertsonalizatzea posible izango da, eta erosotasun asko eskainiko dizkio gidari eta bidaiariei.

Kostu zuzenei dagokienez, gure kostu finkoak soldatak, webgune eta aplikazioaren sorrera, eta kontzesionarioaren alokairua izango dira. Kostu finkoak, ekoizpen mailarekin loturik ez dauden kostuak dira, hau da, nahiz eta guk gehiago saldu, kostu hauek ez dira aldatuko. Beste aldetik, kostu aldakorrak materialak izango dira: gurpilak, sentsoreak eta beste pieza batzuk. Energia ere kostu aldakorra izango da, eta baita garraioa ere. Hauek kostu aldakorrak dira, hilabetearen, produkzioaren eta gure egoeraren arabera aldatzen direlako. Adibidez, material faltaren bat badago, prezioak gora egingo du.



Hala ere, horrelako arazoei aurre egiteko ditugu funtsezko elkarteak. Beste enpresekin elkartzea materialak lortzeko ondo etorriko zaigu, material gutxi daudenean ere ahalik eta errezen lortzeko. Hau da, elkarte hauei esker bermatuko dugu metiaral beti eskuragarri izatea.

Zeharkako kostuei dagokionez, gure autoak ingurunea zaintzen laguntzen duenez, jendeak gure autoa erosiko du, nahiz eta ekoiztean kutsatu, gutxiago kaltetuko dutelako ingurunea autoa erabiltzean.

Etorkizunean gure enpresak arrakasta izaten badu eta ekoizpena eta dimentsioa handitu bada, eskala-ekonomia izango da batz besteko kostuak gutxitu egiten direlako. Horren ondorioz, Chitekiko kostu finkoak unitate gehiagotan banatuko dira, beraz, kostu unitarioa gutxituko da.

Gure enpresaren hedapen-ekonomia kontratatuko ditugun ingeniarietan oinarrituko da, hauen bidez ekoiztuko baititugu autoak, enpresaren webgunea eta mugikorretarako eskuragarria izango den aplikazioa.

Gure diru sarrerak eta gastuak kalkulatzeko hurrengo taula hau baliatuko dugu. Bertan gutxi gorabehera hurbilduko gara lehenengo hilabetean egingo ditugun mugimendu ekonomikoetara. Taula hau aurrez irabazi iturrietan definitutakoan oinarritzen da.

<b>DIRU-SARRERAK</b>	<b>KOSTUAK</b>
Mailegua (lehenengo hilabetea): 500.000€	Autoaren produkzioa (aldakorra): 1. Basikoa: 20.000€ x 10 = 200.000€ 2. Familiarra: 30.000 x 5 = 150.000€ 3. Deportiboa: Diru gehiago dugunean ekoizten hasi
Marken kolaborazioa (publizitatea): 50.000€	Langileak (finkoa): 1.500€ x 100 = 150.000€
Autoen salmenta: 750.000€ 1. Basikoa: 40.000€ x 10 = 400.000€ 2. Familiarra: 70.000€ x 5 = 350.000€ 3. Deportiboa: 0€	Argia (aldakorra): 211,27€ hilabetean gutxi gorabehera
	Lan espazioak alokatzea (finkoa): - Kontzesionarioa: 1.300€ - Tailerra: 600€ Guztira: 1.900€
	Mailegua itzuli (finkoa): 10.000€
	Bestelako kostuak (aldakorra): 10.000€
<b>GUZTIRA: 1.300.000€</b>	<b>GUZTIRA: 522.211, 27€</b>

Ikusi dezakegu, gure negozioa errentagarria izango dela, diru sarrera gehiago ditugulako gastuak baino. Nahiz eta maileguak hilabetero ez izan, errentagarria izaten jarraituko du. Horretaz gain auto deportiboa beranduago ekoizten hasiko gara, hauen produkzioa oso garestia denez errentagarriagoa iruditzen zaigulako beste bi modeloak egitea hasieran.

Hasierako mailegua kontuan hartu gabe, 200.000€ inguruko irabaziaz izango genituzke hasiera batean, modelo deportiboen produkzioa hasi baino lehen. Hala ere hau ez da balio finkoa, hainbat gastu aldakorrak baitira. Irabazi hauek auto

gehiago egiten inbertituko ditugu eta irabazi handiak ditugunean deportiboa produzitzen hasiko gara. Gainera, gure enpresa hobetzeko eta handitzeko ere inbertsioak egingo ditugu. Gure helburua, bezeroari kalitate hobereana eskaintzea baita, auto eroso eta erabilerraz bat eskainiz, era berean segurua dena, eta gutxi kutsatzen duena.

Ondorioz, gure negozio-eredua balioan oinarritutakoa izango da; gure kostu finkoak soldatak, webgunea, aplikazioa (ingeniariek egingo dute) eta alokairua izango dira, eta aldakorrak materialak, energia eta garraioa.